

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Eragindako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                    |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|----------------------------|--------------------------------------|
| 8/2017             | R12/2017        | 24-10-2017 | Gipuzkoako<br>Foru Aldundia       | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoen egoitza fiskala. |

**Ebazpena: R12/2017**  
**8/2017 Espedientea**

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 24an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, zeinak Gabriel Casado Ollero baitu batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide, honako hau

**ERABAKI DU**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari aurkeztutako eskumen-gatazkaren inguruan, 1 ERAKUNDEAK (IFZ -----) sortu zenetik (2012ko maiatzaren 17a) izan duen zerga-egoitzari dagokionez; gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetu da, 8/2017 espediente-zenbakiarekin, Isaac Merino Jara jauna zuela txostengile.

**I. AURREKARIAK**

1.- 2017ko apirilaren 3an, Gipuzkoako Foru Ogasunaren Araugintza eta Aholkularitza Juridikoko zerbitzuburuak, Foru Gobernuaren Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz (aurrerantzean, GFA) 2017ko martxoaren 28an hartutako erabakia betez, eskumen-gatazka bat aurkeztu zion Arbitraje Batzordean Zerga Administrazioko Estatu Agentziari (aurrerantzean, ZAEA), 1 ERAKUNDEA zergapekoak sortu zenetik (2012ko maiatzaren 17a) izan duen zerga-egoitzari buruzkoa.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Eragindako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                    |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|----------------------------|--------------------------------------|
| 8/2017             | R12/2017        | 24-10-2017 | Gipuzkoako<br>Foru Aldundia       | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoen egoitza fiskala. |

Aurrekarietan eta zuzenbideko oinarrietan oinarrituta, jarritako gatazka onartu eta kontuan har zezan eskatu zion GFAk Arbitraje Batzordeari, eta ebatz zezan «1 ERAKUNDEA (IFZ -----) zergapekoaren zerga-egoitza foru-lurraldean dagoela –Azpeitian, zehazki– 2012ko maiatzaren 17tik, sozietatea sortu zenetik...».

2.- Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- a) 2006ko maiatzaren 18ko lantaldeen ondorioetan adostutakoaren arabera, helbide-aldaketaren prozedurari dagokionez, GFAko Ikuskapeneko Zuzendariordetzak eskaera bat aurkeztu zion ZAEari 2016ko abenduaren 12an; 1 ERAKUNDEA zergapekoaren zerga-egoitza aldatzea eskatzen zuen, 2012ko maiatzaren 17tik aurrerako atzeraeraginezko ondorioekin, hau da, sortu zenetik aurrerakoekin. Eskaera hori helbide-aldaketari buruzko txostenarekin batera zihoan (2016ko abenduaren 9koa zen txostena).
- b) 2017ko martxoaren 6an, ZAEAk erantzun zuen ez zegoela ados foru-proposamenarekin, eta adierazi zuen ez zegokiola zerga-egoitzari buruz proposatutako atzeraeragina.
- c) 2007ko abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiak (aurrerantzean, EIABA) 13. artikuluan eta 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Itunaren 43. artikuluan xedatutakoan oinarrituta, GFAk gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean 2017ko apirilaren 3an; data horrekin erregistratuta geratu zen Arbitraje Batzordean.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Eragindako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                    |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|----------------------------|--------------------------------------|
| 8/2017             | R12/2017        | 24-10-2017 | Gipuzkoako<br>Foru Aldundia       | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoen egoitza fiskala. |

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, zerga-egoitzari buruzko 2016ko abenduaren 9ko txostenean eta gatazka aurkezteko idazkian, honela dio:

- a) «1 ERAKUNDEaren administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza Azpeitiko 1 HELBIDEan zentralizatuta daude, baita enpresaren jarduera ere; eta han ditu bere helburu soziala den jarduerarako bitarteko materialak eta giza baliabideak...».
- b) Ondorio hori honako egiaztapen hauetan oinarritzen da: bazkideek zerga-egoitza Gipuzkoan dute, baita administratzaile bakarrak ere, eta azken horrek bere funtzioak lurralde horretan betetzen ditu; administrazio-, 1 ERAKUNDEAREN lan-, kontu- eta zerga-kudeaketa Gipuzkoan egiten du hari lotutako entitate batek, 2 ERAKUNDEak; lan-kontratu guztiak Azpeitiko EINen bideratu dira, eta, beraz, langile gehienak Azpeitiko zentroari atxikita daude.
- c) Ondorio hori ZAEako funtzionarioek agerian jarritako egiaztapen batek osatzen du: 2 HELBIDEko egoitzan, Madrilen, ez dago langilerik ez jarduerarik.

4.- ZAEak 2017ko otsailaren 3ko txostenean honela dio:

- a) 1 ERAKUNDEak ez du antolatu bere kabuz ekoizpen-bitartekorik eta giza baliabiderik edo bietako bat ere aitortutako jarduera ekonomikoaren ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan kontu hartzeko; beraz, ez du jarduera ekonomikorik izan, eta jarduera materialik gabeko sozietate instrumental huts gisa agertu da.
- b) Horretan oinarrituta, uste du, 1 ERAKUNDEaren zerga-egoitzari buruz, erakundea sortu zenetik (2012) egiaztapen-aldia bukatu bitartean aitortutako zerga-egoitzan (Madrilgo 2 HELBIDEa) ez dela jarduera

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Eragindako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                    |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|----------------------------|--------------------------------------|
| 8/2017             | R12/2017        | 24-10-2017 | Gipuzkoako<br>Foru Aldundia       | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoen egoitza fiskala. |

ekonomikorik izan, eta, beraz, administrazio-kudeaketa eta ezein jardueraren negozioen zuzendaritza ez direla han zentralizatuta egon.

5.- Hala ere, ZAEAREN txosten horrek inguruabar hauek onartzen ditu:

a) 1.2 zenbakiak, bukaeran, hau jasotzen du: «Dena dela, ezagun diren gertaera eta inguruabarren arabera, 1 ERAKUDEAREN edo zergapekoari egotzitako jardura ekonomikoak egiaz egiten dituen erakundeak benetako zerga-egoitza AZPEITIAN dauka, Gipuzkoan – alegia, lortutako errentak eta jasandako BEZaren kuoten kenkariak horri egotzi behar zaizkio–; izan ere, han daude zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Gainera, Euskadin dago balio handieneko ibilgetua; aktibo ez-arrunt ukigarri nagusia, hau da, izakinak». Hala, bada, pentsa liteke zergapekoak Azpeitian izatea benetako zerga-egoitza.

b) Laugarren ondorioaren arabera, «zergen foru-administrazioaren eskumenen artean dago enpresa-jardueraren ondoriozko errentak eta BEZaren zerga-kuotak taldeko zein erakunderi egotzi behar zaizkion erabakitzea, edota 1 ERAKUNDEAK jarduketak bete izana egiaztatzeko probak zehaztea».

6.- Horregatik guztiagatik, ZAEAK honela erantzun zion GFARI 2017ko uztailaren 20an: «Zergapekoa 2012az geroztik Gipuzkoan legez eratuta dagoela onartzen da eta hura 2012ko maiatzaren 17tik aurrera ikuskatzeko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola».

7.- Jakinarazpen hori dela medio, gatazkaren sorburua desagertu egin da.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Eragindako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                    |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|----------------------------|--------------------------------------|
| 8/2017             | R12/2017        | 24-10-2017 | Gipuzkoako<br>Foru Aldundia       | Estatuko<br>Administrazioa | Pertsona juridikoen egoitza fiskala. |

8.- 2017ko uztailaren 21ean, ZAEAk idazki bat bidali zion Arbitraje Batzordeari, gatazka artxiba zezala eskatzeko, horren sorburua gerora desagertu zelako.

9.- 2017ko irailaren 6an, GFAk idazki bat bidali zion Arbitraje Batzordeari, harrezkero gatazkarik ez zegoela jakinarazteko eta gatazka amaitutzat eman zezala eskatzeko, ezin zitzaiolako jarraipenik eman gerora sortutako arrazoiak zirela medio.

10.- Zergapekoa ez da gatazkan dauden aldeetako bat, baina, gatazka desagertu eta artxibatuta, ez zaio babesgabetasunik edota kalterik eragin.

## II.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- GFAk aurkeztu zuen gatazka, zergapekoa Gipuzkoan legez eratuta eta sortu zenetik bertan helbideratuta zegoela uste zuelako.

2.- Arbitraje Batzorde honek deklaratu du (besteak beste, uztailaren 28ko R17/2006, azaroaren 4ko R20/2016 eta abenduaren 28ko R21/2016 ebazpenetan) aurrez aurre dauden zerga-administrazioei soilik dagokiela gatazka hau; alegia, administrazio horiek dute gatazka aurkezteko eskumena, asmo horretan atzera egiteko edo proposamena egin duen administrazioari amore emateko aukera, eta, azkenik, gatazka honi irtenbidea emateko erantzukizuna Arbitraje Batzordeak ezer ebatzi baino lehen.

Hain zuzen, hori gertatu da kasu honetan, GFAk eta Estatuak 1 ERAKUNDEA zergapekoak sortu zenetik (2012-05-17) aurrera izan duen helbideari buruz erdietsitako akordioa dela medio.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Eragindako administrazioak</i> |                         | <i>Kontzeptua</i>                    |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|-------------------------|--------------------------------------|
| 8/2017             | R12/2017        | 24-10-2017 | Gipuzkoako Foru Aldundia          | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridikoen egoitza fiskala. |

3.- Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, «Arbitraje Batzordearen deialdiei, osaerari, bilkurei, erabakiak hartzeari eta funtzionamenduari eta prozedurari buruzko araubideari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa hartuko da kontuan; azken erreferentzia hori Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Lege berriaren xedapenei egiten zaiela ulertu behar da, joan den urriaren 2tik aurrera indarrean dagoen xedapen indargabetzailearen 3. zenbakian esanbidez ezarritakoaren arabera (azken xedapenetatik zazpigarrena)».

4.- 39/2015 Legearen 84. artikuluekin bat datorren 30/1992 Legearen 87. artikuluen arabera, besteak beste, honako hauek amaituko dute prozedura: eskaeraren edo uziaren ebazpenak eta atzera egiteak, eta «baita (...) bat-batean gertatutako kausak direla-eta jarraitzeko ezintasun materialak ere»; edozein kasutan, emandako ebazpena arrazoitu egin beharko da. Prozeduraren xedea gerora desagertzen den kasuetarako, prozedura hori amaituko duen ebazpena kasuan kasuko zirkunstantzia aitortzea izango da, eta gertaerak eta aplikatzekoak diren arauak adieraziko ditu» (30/1992 Legearen 42.1 artikulua eta 39/2015 Legearen 21.1 artikulua).

5.- Kasu honetan, gatazkaren xedeari buruz Estatuak eta GFAk akordioa lortu izana aitortu dutenez, desagertu egiten da bi administrazioen artean sortutako desadostasuna, eta, beraz, desagertu egiten da Gipuzkoako Foru Aldundiak hasitako prozeduraren xedea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

**ERABAKI DU**

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> |            | <i>Eragindako administrazioak</i> |                            | <i>Kontzeptua</i>                           |
|--------------------|-----------------|------------|-----------------------------------|----------------------------|---|
| 8/2017             | R12/2017        | 24-10-2017 | Gipuzkoako<br>Foru Aldundia       | Estatuko<br>Administrazioa | <i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i> |

1.- Jardunak amaitzea eta artxibatzea; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren artean lortutako akordioak eztabaida bat-batean desagertzea dakar eta, horrekin, gatazka honen xedea.

2.- Hitzarmen hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.